

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

ZIBERO-ko berriak. - LIGUEIX

olerkariaren bertsuak

Garai huntan Ziberoa gure artean alpatua izaten da, inaute edo inauteri ingurutan ematen oi diralako maskarada famatuak noizean bein, aldizka, eskualde eder orotako errietan. Zer ote du probentzia tipiko horrek, hain tinki beste euskaldunak ekaarazteko? Zazpien artean tipikoa da, bai eta, arabera, olerkari, kantari, dituenik eta pasturalegi gorenak eman.

Hortako ziren Bela, Oihenart, Sauguis, Maister, Chabo, Sallaberry, Laxabun, Barroxe, Larrieu, Intchausep, Saffore eta Leopoird Irigaray; bai eta gusandig urbilago, Jauregain, Ligueix, Dr. Jaureguiberry eta beste batzuek; oraiakoa alpatu gabe.

Ziberoa irriburua Maule da, eta hortan ateratzen da libetean bi aldiz, Le Miroir de la Soule aldizkari tipia. Hemen kausituzen dugu beti, euskaraz edo euskaldun-goaz ari den artikuloren bat; Pays basques-eko deitu Nafarroako berri asko ekaertzen dugu; bai eta hemengo liburu berri, errietan erakusten diren fabrikak, elektrikoak aintzira eta abar.

Haren buruzagi Pierre UDOY-ek, euskaldungoari edo alatusunari buruz, zentzu aundiko artikulok idazten ditu heien erdaraz, erdiko bide zuhurrik gidatu nalez irakurleak, bi estremo politikariak baztertuz beti, egiazko liberal baten gisan; eta biarno eta gaskoin auzok jendetasunez alpatuz. Zertako ez, beihala, euskal errazko izan baziran? Paper zaharretan, Vasconie deitu lurraldea, goitiz Gasconie bezala frantsesa ikusten baita Historietan.

Pirene-mendi bi aldekoen artean industria eta merkatalago sustatzen ditu UDOY-ek, Ikastolak laguntzen, Europako geroari buruz, eskualdeak eta regionak ez ahaizten. Sozial berberdintasunak zuzenduz nalez, beste hongo euskal paperetan baino areago, zenbat artikulok zuhur eta bide batez auzat, irakurri izan dugu?

Nik ere urteko hiru bat desatzen diot hemendik UDOY jaunari, gisa berean eta eraberik gabe (liberal izateko bihotza behar baita egun) bere eginkiz estuan segitzeko. Maule Ikastola bat idiki dute, eta euskararen kontrarioerri, aldizkariak esplikatu die, ezteula elkarrekin politikoekin lokarrik; Eskola berri hori, école laïque ofizialaren aurka eztegoela, ez eta frantses ikuntza edo Erresumaren kontra ere, Euskarara irakatsiz aise obeki ikasten al dutela auzat frantsesa ere; egia hau oraiako pedagogoei aitortzen duten bezala.

Nafarroan eta Donostian bereziki, Ziberoak dituen adiskideak, auzten ere joan gogo dutela maskarada edo Pastural baten ikustera badakit, eta zibero-kantorek xarmagariak gustatzen; hortarako, Le Miroir-en, agertuko dituzte tenorez, espero dute, egunak eta tokiak, joan den urtean bezala.

Le Miroir aldizkari umil horrek aal duena egiten du, ziberoarren euskaltasuna pizteko, hunen kontzientziarik ezpata kasik han, gasteetan. Lantegi eta lantokien faltan, gazteria Parisera beha dago beti, zorigaitzez. Altsa, astapen xuma bat baitzake (ausartzen gara UDOY jaunari errate-ra), erietako berrien sailan, euskaraz sartzea lau itz, auzen herroan, frantsesaren ordez, noizean bein. Adibidez, Suhutan (Cheraute) edo Iruin (Trois villes) erriko berriari; Hegoburu bat hil bada nous adressons nos condoléances errateko ordez Dominak etxeokor itezkin finitu.

Edo... Nequecar bat ezkondu bada choleureuses félicitations eman ordez Gure zorion biziak ezar. Tipikeri horiek, euskal kontzientzia pizten aal da, alegia deuez. Ezteletako fotoak ere gustagarri dira ziberoar ez garenatzat, izen-deitura eder eta euskal arazaz garbiko aorpegiak kausitzen aal diralako maiz.

Hemen Dirioaren agertu ditugun zenbeit Zibero-berri, ezdu norbaitek utsegin alpatu aldizkari hortan, bai eta kopiatu ere. Gure liburu Noticias y Viejos textos deloan, sartu izan ditugu 5-6 zibero-gaiekiko kapituluak; Maskaradak, Etzahun Barkoxeko

olerkari dohakabearen zorigaitzak, eta Chamisso aleman poetak horri buruz ondutako Poema. Otsagin aurkitu Atarratze jaunregiko kantaren adar bat sartu ginuen liburu berean; bai eta Santiagora zozin ziberoar telegriren euskal kobak (ez-egazunak ordu artio) ere irakur ditazke hor. Heien artean sartu ez nuen bat ezarriko dut hemen:

Adio ene aita eta ama // Adio ene adiskide maitat // Kitatzen zutiet orai ere // Banna sent Jakaserat //

Oraindik Ziberoaz beste bi kapitulu aurkitzen dira liburu hortan: —Astigarray de Perse— pasturalaren zati bat, euskeratik erderara itzulia; eta aztkeri gisako Atarratzeak aspaldi artutako gutun bat; bertan meza bitxi bat eskatzen, presuna hoven meatze lurrari sorginkeria ekaetzeko.

Arroterik batera gabe, Ziberoa uskara eta jostetaz, gure artean estimatugoa dirala kasik, bertakoengandik baino gelagoko seinalea, da hori dena.

Ziberoa berri hauek bukatzeko, LIGUEIX, Santagaziko olerkari aundi haren bertsu batzu emanen ditugu; kobakari, pasturalegi eta xikulari maitatua den, gure adiskide Pierre Etchahunen ezteietan, honeri kantatliak.

I Bedatsian eijer da oianian bagua, Ekiari hedatzen lehen bedats-ostua, Arteka ezagun da kukiaren mintua, Hegats-egitlik kortekan, dago etxe-urzoa, Orokrek altxatutik, bihotzeko gozoa, Eteziarar agur. baten, errate-ra banoa.

II Espus espusa maita, eta maitagarriak, Oro zirentzat dira egunko uhuriak, Santagaz aldean, zindelarik bi-biak, Amoriau artekari, jakitizat txoriak, Ez utzi ahaiztera, ordu hartu xediak, Baitzepadakuak dira, bihotzen kuntratiak.

III Espus jauna, ez zalzu estranje ene botza, Bostetan ezintzu dugu, izateko arrotza, Amodios kantian, jarri zaitzun arusa, Beti kuraja ezazu, mundin ezadain lotsa, Penetan ele eziz, libra zozu bihotza, Hala nula hurtzen beitu, goiz-ekiak izotza.


IV Elura bezain xuri, espusa baten bela, Espusa eijeretan, heben dugu modela, Itura bezain eijer, izan dadin gibela, Egizu espusa bat, zuhur eta fidela, Badakizu senara, kobakari bat de la Ez sobera partida eijer, uestez ohe zirela.

V Orai biak herisiko, juntatutik algari, Konfiantzaz so-egin zaitze geroari, Oren beltzetan ohar, lurre de la sorgari, Amodios da aisenik, bihurtzen penari, Unurez bizitzeko, fida zite lurrari, Hala nula fidatzen den, marinela urari.

VI Badut aski eranik, orai nahi niz jari, Parkamentu gaitzazu, ene hitzen ordari, Ez haatik eran gabe, gure espus jaunari, Gure adixkidantzen, finkatzeko lokarri, Zien bostgerren haurra, nahi nuke egari, Arte huntan deizela linoak osagari, Itz zenbaiten erran naita: —Bedatsian eijer = udaberrian eder // Ekiari = eguzkiari // kukiaren = kukaren // hegats-egitlik = teillata egitlik // Eteziarar = eteiziarar // uhuriak = oharak // artekari = mediodor // Jakitizat = lekukotzat = testigutzat // Baitzepadakuak = ezin utziko // kantian = ondoin // arusa = arrosa // kuraja ezazu = lagunt ezazu // bela = velo // Gibela = el fondo // hersiko algari = estutuko elkarri // sorgari = sorgarri = calmante // ordari = ordeko // egari = ikusi // Kantoriak = Kantak. //

A. Apart-Etxebarne

MAULE'KO IKASTOLA



Maule'ko Ikastola (AIDA argazkia).

Maule iri zoragarria, Xuberoa euskal probintziaren iri burua dugu. Iria bezela ederra, alai, polita, beti irriarrez. Xubero erdian dago, mendibabean, zelaitxo batean. Ibai basatia, bizi bizi erditik dijakio. Auiamendi ta ORH'ko iturritik artzen ditu urak. Bertan 5.000 bizilagun daude eta lantokiak ugaritzen dijakio. Zortzarrez euskeraz atzeraka aundia egin dua. Orain dala 70 urte, aurkak karrikan euskeraz mintzatzen ziran. Gero mailuak eskolatan gogor egiten zieten. Gaur euskeraz oso gutxi egiten dute, gelenak frantsesez.

Iri onko bere euskal kutsua gandu du. Bazter guztietan frantsesa nagusi. Mingarria da ori kutsua euskal probintziatiko berxienetako batean. Ezin degu aztu Xuberoa degula euskal probintziatiko baten, lizean 35 km., zabalean 18 km., danera 20.000 bizilagun ditu ta euskal kulturaren aldetik ikaragarriko nortasuna daukana. Zuberorako daude beste probintziaren ikusten ez diran gauzak, adibidez Maskaradak, Pastoralak, txurula, kanta ezitxuak, izkuntza zarrenetako.

Izadiaren aldetik berriz gogoan eukitzeko dira Irati'ko basoak, Kakoueta ta Oizarte'ko mendi txintxurak. Edergailu aldetik lru zatiko dorre bakarrak elizetan, arbelazko tellatuk etzetan eta abar. Xuberoa Euskalerriko mutur batean arkitzen da, Bayona'tik 80 km'ra, Paule'tik 60 km. bakarrik bertago. Orain arte euskal kutsua naiz bizirik izan, ipurdiz gorz zijoan eta danetan frantsesa nagusitzen. Frantses kulturak biltzen zuan alderdi au beara izan ba lu bezela ta euskeraz garai zarretako tresna bat bezela artzen zuten, antzifiko gauzeikin zerikusia daukana, gaukoakin ez.

Maule'n 1972 garren ikastaroan, iriki dute ikastolak garrantzi aundia dauka ta euskal kulturak Zuberorati bizi nai dula esan nai du. Talde txiki baten lana izan da; Xubero'ko guraso batzuek euskeragatik kezkatuak, emendik iges egindako lau sendi

gazte, apaiz batzuek eta andereño bat.

Euskalerriko ipar aldean, ikastolak sortzeko ba dago alkarte bat Seaska izeneko, Alkarte au Maule'n ikastola irikitzeko, onari batzuen bila ibilli da. Gregorio Eper, Maule'n irakasle bezela dagoen xuberoar apaizaren bidez lenengo urratzak eman dituzte. Anderenora Margarita Rekalt Alzaf'koa dute, 21 urte ditu. Domezaingo ikastola ean zegoela, Seaska abeslaria GUK taldekoa ezagutu zuan eta onen bitartez ikastolak ugaritzen zijoazela jakin zuan. Seaska taldekoakin artu emanetan ari zan eta alkarte onen bitartez Le-gorreta'ko (Gipuzkoa'n) ikastolan egin du ikastaro bat. Joan dan udaran Maule'ko sendiekin bilerak egin dituzte. Oiekin batean Bordelen eta Paulen ikasten dauden gazte batzuek ibilli ziran. Erikoetxeak asko lagundu die, baita gela eroso bat irian dagoen etxe ederrenetako baten utzi ere.

1972'an irailaren 14'an ikastolaren ateak iriki dituzte eta 13 aur euskeraz mint-

zatzen ari dira. Ezin degu egun or ai n errex aztu Orain Xubero'ko lenengo ikastola iriki dute.

Batzuel aur gutxi dirala iduritzen zaie. Euskalerriko ikastola gelenetan asieran aur gutxi zeuden. Ikastolaren bitartez euskerak arnasa berr bat eta indar berex bat ar tuko du Xubero'ko euskal probintzian. Ikastolaren bitartez Euskalerriko Xuberoa beregantuko du. Orain Xubero'ko euskaldunak ba dakite nun dagoen gure erriaren mintegia edo iturria. Nai ta naiez zaldu bearra dago.

Ikastolan sartu nintzala, aur guztiak batean, izan un-txa' irri parrez esan zidaten. Nere barrenean poza aundia ar nuen Xubero'ko euskaldunak ikusteakin esnatzen ari ziralara.

Ikastola berri oneri, Maule'ko idazle baten izena jar-zea egokita izango litzake. Orain biziarru urte dira Jean Batiste Ixuregi il zala; xuberoarra ta euskal idazlea genuen. Ariztak zañak ditun bezela, ikastolak bea du bertako izen baten babes.

LATXAGA

EZ ETE-GARA GEURE BURUARI

BAKARRIK BEGIRA ASE?

XIII EKINTZAKO BILKISA: 110.109.496 LAUERLEKO

% 32,62 bere gorakadea

Españar bakoitzak batzaz-beste: 3,09.

Aldi berean España'k eralgia:

Edarrietan	30.728.000.000
Alkoldunetan	9.764.000.000
Alkoldukoetan	40.492.000.000
Keebalarretan	25.105.000.000

Bilkiñaren banaketak:

% 37 lurgintza ontzeko asmatu-deetan
% 31 jakintza zabalkundeetan
% 13 gizarre laguntzan
% 10 osasun ardurari
% 9 emakumeen aurrerakuntzan

Emaitzak: Diru-etxeak, Espafiol de Crédito, Hispano Americano, Bizkaia, Central, Popular Espafiol, Bilbao eta Santander.

Eginkari Batzordea - Alfonso XI, 4-2 - Madrid-14. Gotzai-barrutietako Ordezkaritzak.

EUSKALERRIAN BARNA

URRUZUNO ZENARI OMENALDIA ELGOIBARREN

Joan berri den igandean, Urtarrilaren 28 an, Elgoibarreko herrian, Pedro Miguel Urruzuno apez jaun zenari Euskaltzaindiak, bertako Agintari eta Elkarrekin antolatutako «Omendialdi-Eguna» ospatu zan.

Lehenengo egunetan Elgoibarreko «Ongarria» Elkarrekin Euskerari eta Euskal Herriari buruzko zenbait gaiak arturik elkarhizketak, hitzaldiak, mahai biribillak eta «Euskal ipuin Sariketak» eratu zituen.

Iragan igandean, esa dudan bezala «Omendialdi Egun» izan zan. Hamar Urdietan Elkarrekin herriko Elizan eman zan Urruzuno zenaren alde, Gero Euskaltzaindiak bere «chileoroko Biltzarra» egin zuen, eta ondorean yende guztientzako BILTZARRA IRIKIA izan zan. Euskal izain diaren Buru den Aita Villasantek hitz batzuk esanez asiera eman zion; gero Antonio Arruek, Antonio Zabalak, eta Yulene Azpitziak Urruzuno zenaren oroimenez be-za zenari buruzko zenbait

gaiak arturik (euskal idazlea, gizona, bere garaia eta) hitzaldi bana bota zituzten. Batzar Iriki'an berean Euskaltzaindiak 113 jaun-andrei «euskal irakasle» agiriak banatu zituztion. Batzar honen bukatzeran «Ongarria» deitutako Elkarrekin «Urruzuno Ipuin Sariketa» ren irabaztaileari Saria eman zitzaion: Antton Haranburu gaztea txapel-dun gertatu zan.

Euskaltzaindiak eta Elgoibarreko herriak behar dan bezala euskal idazle, euskal laguntzaile eta bertako seme zintzo zenari auzten berrogetamar urte hil zela-ta, Omendialdi bikaina egin diote.

«EUSKAL POESIA SARIKETA» IRUSEAN

Gure Iruñeko «ARTIZA» Liburu-denda delakoak «Lehenbiziko Poesia Lehiaketa» antolatu du. Naiz euskeraz naiz erderaz poesiek idatzi ditzeke, eta bidaltzeko epea datorren amagur-renean (10 an), hau da biar larunbatan, akituko da. Bere garaian hemen, «DIARIO DE NAVARRA»-n «Poesia Sariketa» honen berriak eman ziran. Lehe-

nengo Saria 3.000 pezeta-koa izanen da. Besteak liburuak.

GABRIEL ARESTI ETA BERE HIZTEGUA

LUR Editorialak esan digunez laister Gabriel Aresti euskal idazle famatuak bere euskal Hiztegia bukatuko du. Hiztegi honek 50.000 hitz izanen ditu eta LUR berberak argitara emango du. Datorren udaberrirako lehen tomoa azalduko da, eta bigarren a udarako, Hiztegi honen bigarren tomoarekin batera «euskerazfrantses eta gaztelaniazko» hiztegi berezi bat ere LUR delakoak argitaratu-tuko du, Gabriel Aresti'ren lanetan «oinarritua» egonen dena. Nere uestez garrantzi haundiko laguntza izugarria gure euskerarentzako, gure euskal kulturarentzako, Hiztegi hauek izanen dira.

ETOR EUSKAL EDITORIALA

ETOR delakoak bidaltutako agiri bat artu dut 1973 urterako asmoak azalduz. Berak argitara eman nahi dituen euskal liburuan izanen esan beffio lehen esaten digu ETOR izena alde

btera utzirik eta hemendik aintzinerako GERO euskal hitz gogoangarria izenburutzat artu berri duela. Bere arazoainak ematen ditu izen-aldiera honengatik.

Auzten argitaratzeko dauden liburuak hauek dira:

«USA-ren agintaritzaz eta dolarren ahuiez» Egilea: Gurutz Ansola.

«Itsasoa ur-bazter luzea da» Egilea: Martin Ugalde.

«Lanaren antropologia» Egilea: Roman Garate.

«Gatu beltza» Egilea: Dominique Peillen.

«Muga berok» Egilea: Juan Mari Lekuona.

«Pedagogia gaur» Egilea: Jorge Erribengoa.

Nobela bat, Angel Lertxundirena.

«Euskal Herriaren Historia» Federico Zabala. (Bigarren tomoa izan da).

Autobiografia-Sabino Iriar.

«Langileria historian zahar-Mikel Ugalde (Bigarren tomoa).

«Ipar Euskal Herriaren Historia» Eugene Gotherneche.

IKUSLE



Margarita Rekalt andereñoa. (AIDA argazkia).

GURE IKASTOLAK (XI)

Ikastolen erabakia lehenbizikoa

1970. Urriaren 16-an erabaki zabal bat hartu zuen gure Diputazioak: euskeraren iraupenari begira lana egiteko erabakia, laburra bezain mamitsua. Lehengoan aipatzen genuen eskabidea ongi egin zegoen; begi zorrotzez helburua ikusiaz, olerki eta lorategi kutsuarekin idatzizun bere egileak, Bihotza ta burua zebiltzen jokia. Haren ondorena zen urricio erabakia. Hitzaz hitz eta bere asmo guztietan on-hartua, genuen Nafarroan aspaldiko ikastolien hauria.

Urriko erabakiak beste zerbaiz eskatzen zuen, halare: hura aurrera eramateko xehetasunen araudia. Trabarik ez sortzeko zabaltasuna ba zuen; eta ezer ez esateko eran egin. Bigarren erabakiak behar zituen xehetasunak eman.

1971. Gure ordezkari edo diputadoen berritzea urtea. Xehetasun guziak Elkargo bat sortzeko, eta bere eginkizunen mugatzea zijoazen. Naparroak euskeraren alde lana egiten aialtuko zen elkargoa.

Bidez onex jasoa izan zen: bi diputado jaunek, Elizalde eta Urmenetak ezpenpetu zuten. Egun hartan Madrillgo kargu haundi bat zetorren Nafarroa eta Urmenetak ez zuen batzarrean «goterik izan, bera baldiu bai zuten ongi etorria ematera. Hala eta guzti, aho batez on hartua izan zen euskeraren aldeko erabakia.

Hor genuen hauria erabat mugatua, uestez behintzat. Ofizialdi jakinarazteko «Boletín-een» zabaldu beharra zen: hori zion azkeneko puntuak. Horren berri zeatz izanki, «Principe de Viana» euskal aldizkarian argitaratu genuen (ikus 60-gn zenbakia). Luze ta zabal hitzegin zen bazteretan eta goresmen haundiak hartu zitzen Diputazioak.

Irakaskintzako arduradunekin, ispetore eta heuren agintariekin hartu-eman estuan lana egiteko asmoan sartua zen «Patronato» izeneko elkargo berri hau. Gero mintzatu gero alor hortan bildu zen emaitza eskasez. Batzorde ugariak traba aundiak izaten dituzte; asko diren garalan neke da gizonen bildu eta lana eguaraztea. Batzarre gutxi eta aurrerapen eskasa ikusten da. Hori zen erabakiaren laino bakarra: Nagitasuna.

SAGI

AXULAR SARIA

EZ GARA DENAK BERDIN BIZI

Erramuntxo eta Joxemiel etxe aberats bateko semeak ziren. Eguberri egunean beren guratsok naiz aberatsak, arront kristau onak bai-ziren, bere bi semeekin elizarat yon eta laiak konfesatu, komekatu Meza Nausian, apezaren predikua entzun zuten. Egurdiaren kostunbera bezala bazkari eder bat eta turron mazapan eta bertze gauz goxo auzit yan ondoin; bi anaiak etxetik yostetara atera eta herri bazterreara yon ziren. Zerri bat zukuizki zuzten eta heken ondoin beren adinetako mutiko bat gutxi gorabera. Oritxi galta zahar petatzatuak atorra ere zurie zen haño oria iduri zuen, gañera tarratutua eta zoldaz bete. Hura ikusita erurriturik galdetu zioten:

—Mutiko, zer ai zara hemen?
—Zerri zain.
—Gaixoa, otzak egoin zara?
—Bai otzak eta goseak.
—Noiz etorri zara hunera?
—Goizean goiz.
—Gaur Eguberri eguna, zer ordutan entzun duzu mezar?
—Ez naute bieli eta ez dut mezik entun, nauslak man-tu gabe ez naiteke yon ta...
—Bazkaldu duzu?
—Bai etorri naizelaik talo ta zinger puska bat eman datate eta bereala yan dut. Hori de nere gosari ta bazkari

—Berriz ere yain zinuke?
—Bai bai izan ezkerre pozik.
—Nola duzu izena?
—Martolo.
—Nongoa zara?
—Etakik, tarrá nizelaik guratsok gabe gelditu nizela eta hunera ekarria izan naizela erratan datate.
—Guratsok nor diren bai al dakizu?
—Ain gutxi.

Erramuntxo eta Joxemiel hori aitu ta agur erran eta penaz beterik yon ziren. Aite ta amai kontatu zient mutiko haren izoria guzia, eta azkenian erratan dute:

—Goizean apezak mezan, Jesus Aurre naiz arront aberats izan, pobre sortu zela erran du eta pobre lagundu behar zaiela. Jesus: Gaixoa, hotel egiten diezuena, peri egiten datazeu. Erran zuela ere erran daku apezak goizean. Aitaxo ta amaxo, mutiko hori ikusita hau gogoratu zaigu.

—Zer zer?
—Guk soñeko auzit baitugu eta horrek batzez. Guk yateko naikoa eta ona. Gaixoa hori goseak dugu, etxean ez dutelakoz, gu eskolara yosten gara eta ikasten dugu. Horrek ez du deus yakinen. Hauxe gogoratu zaigu. Gure gauz erdik berai ematea, eskolara gurekin etortzea eta batez ere Mezara. Aitaxo ta amaxo, nai duzue zuek?

—Bai bai eta kontexko, Kontestatu dute aita-amak batean. Geroztik Martolo, Erramuntxo ta Joxemiel bezala bezitzen zen eta ongi yon. Eskolara hasi zen eta auzit ikeli. Martolon etxean ere etzen deus faltar. Martolok etzakien nola agradezitu eta alde guztietan Erramuntxo eta Joxemiel eta bere guratsok egin zutena zabaltzen zuten.

PEDRO MARI GAMIO. 13 urte

BERROETA

JOSUTXO JAIO DA

Egun batez jaio zen Josutxo Belenen eta Erregeak joan ziren Belenera Josutxo ikustera, eta utzi zioten auzit gauza eta jostatu zen beti gauz haiekin. Eman zioten musu bat Josutxo eta Amabirjinari eta Jose Doneari ekarri zioten auzit belak eta loreak eta auzit gauz gehiago eta Amabirjina egon zen konten eta abesten eta Erregeak zauden liritz eta Josutxo ere bai eta etorri ziren artzaleak agurtzera Josutxori eta erregealatu zioten ardi bat eta bildots bat polita polita.

MARIA INES IZETA 7 urte

Elizondo-ko Ikastolako

TXORIA ETA TXAKURRA

Egun batez bazen txori bat zuela izena Perikito eta zen oso ona eta txakurra bera bezalakoa ona. Egun batez etorri zen lengusu bat eta, ez zakiten gaixtoa zela. Patu ziren jaten eta egin zuen korroka ta Txoria eta lengusua eta txakurra asertu ziren zergatik korroka de gauza lu-sia. Orduan txakurrak hartu zuen lengusuari eta bota zuen lehiotik eta ez zen befere etorri. Txoria eta txakurra izan ziren aberatsak eta dirua eman zuten pobreak eta hok erosi zuten arropak eta janaria eta bizi ziren ongi.

ERRAMUN KEBEDO 8 urte

Elizondo-ko Ikastolako